

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AIARAKO KUADRILLA

**Aiarako Kuadrillaren kontrataziorako laguntzen oinarri arautzaileak, Lanbide -Euskal Enplegu Zerbitzuaren- enplegu sustapeneko tokiko ekintzei zuzendutako laguntza deialdiaren esparruan, EHAA argitaratutakoak, 127. zenbakian, 2020ko ekainaren 30ean**

Tokiko Gobernu Batzarrak bilera egin zuen 2020ko urriaren 8an, eta bertan erabaki bat hartu zuen. Horren bidez, onetsi egin ziren Aiarako Kuadrillak kontrataziorako emango dituen laguntzen oinarri arautzaileak, Lanbide -Euskal Enplegu Zerbitzuaren- enplegu sustapeneko tokiko ekintzei zuzendutako laguntza deialdiaren esparruan, EHAA argitaratutakoak, 127. zenbakian, 2020ko ekainaren 30ean.

#### **AIARAKO KUADRILLAREN KONTRATAZIORAKO LAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK, LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN ENPLEGU SUSTAPENeko TOKIKO EKINTZEI ZUZENDUTAKO LAGUNTZA DEIALDIAREN ESPARRUAN, "EHAA" 2020-KO EKAINAREN 30-EKOA**

#### HITZAURREA

Langabezia tasak gehitzea COVID-19ak sortutako osasun krisiaren ondorioz gertatutako krisi ekonomikoaren ondorio larrienetakoa da, eta, Aiarako Kuadrillan ere langabezia tasak gehitu egin dira. Horregatik, Aiarako Kuadrillak laguntza proiektu bat sustatuko du kontratazioak egiteko, hala, enplegarritasuna hobetzeko, kontratazioa eta lan-merkatuaren aktibazioa errazteko eta enpresek bizirauteko.

Laguntza ekonomikoa emateko proiektua da, langabezian dauden pertsonak kontratatzea errazteko. Lanbide -Euskal Enplegu Zerbitzuak- dirulaguntza eman du horretarako, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendariaren 2020ko ekainaren 24ko ebazpenaren esparruan, Enplegua sustatzeko tokiko ekintzak bultzatzeko laguntzen deialdian, EHAA argitaratutakoa, 127. zenbakian, 2020ko ekainaren 30ean. Horretarako, lanaldi osoko eta partzialeko kontratazioetarako dirulaguntzak emango dira. Laguntza horien izaera kontuan hartuz, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrarekin eta Dirulaguntzen lege orokorraren araubidea onesten duen ekainaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuarekin bat eginez, beharrezkoa da honako oinarri arautzaileak onestea.

#### **1. artikulua. Xedea**

Oinarri arautzaile hauen xedea, Aiarako Kuadrillak emango dituen dirulaguntzen emakida prozedura arautzea da. Dirulaguntza horien xedea, laguntza ekonomikoa ematea da, hala, langabezian dauden eta Lanbiden enplegu eskatzaile gisa izena emanda dauden pertsonen kontratazioa errazteko, besteak beste, COVID-19aren osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratu ondoren enplegua galdu zutenei, enpresei eta erakundeei laguntzeko. Horretarako, besteen konturako langileekin lan kontratuak formalizatzea erraztuko da, EHAAko 127. zenbakian, 2020ko ekainaren 30ean, argitaratutako Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren tokiko ekintzak sustatzeko laguntzen deialdiaren esparruan.

#### **2. artikulua. Onuradunak**

Kontrataziorako laguntza hauek jaso ahal izango dituzte pertsona fisiko edo juridiko pribatuek, horien izaera juridikoa edozein izanda ere, betiere, besteren konturako langileekin, Aiarako

Kuadrillako lan eta jarduera ekonomikoko zentroarekin eta Urduñako udalerrian lan kontratuak egiten badituzte.

Ezingo dituzte dirulaguntza hauek jaso honakoek:

- Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorraren 13. artikuluan jasotako inguruabarren batean dauden enpresa edo erakunde eskatzaileak.
- Administrazio publikoak, sozietate publikoak edo haiei loturik edo haien menpe dauden erakundeak.
- Enpleguko zentro bereziak, gizarteratze enpresak, eta, orokorrean, enpleguko ohiko merkatua osatzen ez duten erakundeak.
- Aldi baterako laneko enpresak, langileak kontratatu eta aldi baterako beste enpresa batzuei lagatzeari dagokionez.

Eskatzailea izaera juridikorik gabeko erakundea bada, identifikazio fiskaleko zenbaki bat izan beharko du, eta, kontrakoa egiaztatzen ez den bitartean, erakundeko partaide denari dagokion zenbatekoaren alorrean, Kode Zibilaren 393. artikuluan xedatutakoa ontzat joko da.

### 3. artikulua. Kontratazioen betekizunak

1. Kontratazio guztietan, laguntzak jasotzeko, honako baldintzak bete beharko dira:

- Kontratazioaren unean, kontratatuko den pertsona langabezian egon beharko da eta Lanbiden enplegu eskatzaile gisa inskribatuta egon beharko da eta ez da altan emanda egongo Gizarte Segurantzako araubide orokorrean ezta langile autonomoen araubide berezian.
- Gainera, kontratatuko den pertsona, Aiarako Kuadrillako udalerrri batean eta/edo Urduñan erroldatuta egon beharko da argitalpen honen egunean.
- Ez da dirulaguntzarik jasoko enpresarien edo enpresaren kontrola dutenen, zuzendaritzako karguen edo sozietatearen forma juridikoa eratzen duten enpresen administrazio organoetako kideen ezkontideak, ondorengoak eta odolkidetasun edo ahaidetasun harremana duten gainerrako senideak kontratatzen badira, bigarren mailara arte (maila hori barne).
- Kontratuen gutxieneko iraupena hiru hilabetekoa izango da, eta lanaldi osoan edo partzialean egin ahal izango dira kontratazioak, gutxienez, lanaldiaren ehuneko 50ekin. Kontratuaren iraupena zenbatzeko, kontuan hartuko dira luzapenak, betiere, hasierako kontratua gutxienez 3 hilabetekoa baldin bada eta kontratuen artean, langilea Gizarte Segurantzari bajaran ematen ez baldin bada.
- Kontratuak, lanaldi osokoak edo partzialekoak izan ahalko dira, eta lanaldi partzialekoek gutxienez, lanaldiaren ehuneko 50eko kopurua eta sei hilabeteko iraupena izan beharko dute.
- Kontratuak edozein motatakoak izan daitezke, salbuetsiz, prestakuntzarako kontratuak eta ikaskuntzarako eta praktiketako kontratuak.
- Dirulaguntza jaso ahal izango dute bakarrik formalizazio eguna deialdian adierazitako aldiaren barnean duten kontratuek.
- Ez da dirulaguntzarik jasoko enpresa batek langile bera kontratatzen duenean eta aurretik bestelako deialdietan xede berarengatik dirulaguntzak jaso dituztenak.
- 2020ko uztailaren 1etik aurrerako kontratazioetarako emango dira dirulaguntzak, eta kasu bakoitzean, dirulaguntza jasoko dute hasierako egunaren eta gehienez ere 2021eko ekainaren 30era arteko kontratazioek, betiere, epe horren barnean, atal honetan ezarritako kontratuen gutxieneko iraupena gauzatzen bada, eta albo batera utzi gabe kontratua 2021eko ekainaren 30aren ondoren bukatzea. Horregatik, 6 hilabeterako dirulaguntzak jaso nahi dituzten kontratazioak, gehienez ere, 2020ko abenduaren 31ren aurretik hasi beharko dira, eta 3 hilabetekoak, 2021eko martxoaren 31ren aurretik.

2. Ez da emango dirulaguntza bat baino gehiago pertsona beraren kontratazioagatik, nahiz eta eskaera enpresa desberdinek egin.

3. Kontratazioak, dirulaguntzaren azken egunetik aurrera luzatu ahal izango dira, baina, edonola ere, kostu horietarako ez da dirulaguntzarik emango.

#### 4. artikulua. Aurrekontu kreditua

Dirulaguntzen zenbatekoa eta finantzaketarako aurrekontu kredituen zenbatekoa berrehun eta berrogei mila eurokoa (240.000,00 euro) da, aurrekontu partida honen kargura: 241 227 997.

Hauxe da banaketa:

AIARAKO KUADRILLA (LAUDIO EZ EZIK) ETA URDUÑA			
	PERTSONAK	DIRULAGUNTZA	GUZTIRA
KOLEKTIBO BEREZIEN KONTRATAZIOAK	10	9.000,00 €	90.000,00 €
SEI HILEKO KONTRATAZIOAK	12	6.000,00 €	72.000,00 €
LANALDI ERDIKO KONTRATAZIOAK	10	3.000,00 €	30.000,00 €
			<b>192.000,00 €</b>

LAUDIO			
	PERTSONAK	DIRULAGUNTZA	GUZTIRA
KOLEKTIBO BEREZIEN KONTRATAZIOAK	2	9.000,00 €	18.000,00 €
SEI HILEKO KONTRATAZIOAK	4	6.000,00 €	24.000,00 €
LANALDI ERDIKO KONTRATAZIOAK	2	3.000,00 €	6.000,00 €
			<b>48.000,00 €</b>

Aurreikusitako kopuruaren zenbatekoa albo batera utzita, azkenean emango den zenbatekoa gutxitu ahal izango da emakumeak kontratatzeke jasotako eskari kopuruaren arabera, modu horretan, edonola ere, bete egin beharko delarik Lanbidek -Euskal Enplegu Zerbitzuak- 2020ko ekitaldirako enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen deialdian xedatutako ratioa; laguntza hauek deialdi horren barne daude. Hala, gutxienez, diruz lagundutako kontratazioetako langileen ehuneko 40 emakumeak izan beharko dira.

#### 5. artikulua. Finantzazioa, zenbatekoa eta ordainketa

- Gehienez ere 3.000 euroko dirulaguntzak hiru hilabeteko lanaldi osoko lan kontratu bakoitzeko eta 6.000 euroko dirulaguntzak sei hilabete edo gehiagoko lanaldi osoko kontratu bakoitzeko. Lanaldi partzialeko kontratazioetan edo hiru eta sei hilabetera arteko kontratazioetan, dirulaguntzak lanaldiarekiko eta/edo lan egindako denborarekiko proportzionalak izango dira.

Dirulaguntzaren azken zenbatekoak ezin izango du kontratatutako pertsonen soldata eta Gizarte Segurantzako kostuen ehuneko 75 gainditu; zenbateko horren barne egongo dira kontratu bukaerako kalte-ordainak eta Gizarte Segurantzako kuota, enpresaren kargura.

- Gehienezko laguntza hori gehienez ere 9.000 eurora arte gehitu ahal izango da, kontratatutako pertsonak honako kolektiboetako batean egonez gero kontratazioaren aurretik:

- Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrak edo onuradunak.

- 35 urtetik beherako pertsonak.

- Epe luzean langabezian dauden pertsonak. Epe luzean langabezian dauden pertsonak dira Lanbideen edo Enpleguko bestelako zerbitzu publikoetan gutxienez kontratazioa egin aurreko 540 egunetako 360 egunetan enplegu eskatzaile gisa inskribatuta daudenak.

- 55 urtetik gorakoak.

Dirulaguntzaren azken zenbatekoak ezin izango du kontratatutako pertsonen soldata eta Gizarte Segurantzako kostuen ehuneko 100 gainditu; zenbateko horren barne egongo dira kontratu bukaerako kalte-ordainak eta Gizarte Segurantzako kuota, enpresaren kargura.

Dirulaguntzaren kopuru guztiek ehuneko 10eko kopuru osagarria izango dute emakumeak kontratatzen direnean.

Dirulaguntzaren azken zenbatekoak ezin izango du kontratatutako pertsonen soldata eta Gizarte Segurantzako kostuen ehuneko 100 gainditu aurreikusitako gehikuntzak aplikatu ondoren; zenbateko horren barne egongo dira kontratu bukaerako kalte-ordainak eta Gizarte Segurantzako kuota, erakunde edo enpresa kontratatzailearen kargura.

Epe luzerako edo 6 hilabete baino gehiagorako lanaldi partzialeko kontratazioak egiten bada, emandako dirulaguntza lan egindako lanaldiarekiko proportzionala izango da, eta, lanaldi hori, ezin izango da ehuneko 50 baino gutxiagokoa izan. Dirulaguntzaren azken zenbatekoak ezin izango du kontratatutako pertsonen soldata eta Gizarte Segurantzako kostuen ehuneko 75 gainditu; zenbateko horren barne egongo dira kontratu bukaerako kalte-ordainak eta Gizarte Segurantzako kuota, erakunde edo enpresa kontratatzailearen kargura.

Dirulaguntzarako epearen aurretik lan kontratuak bukatuz gero, dirulaguntza kobratzeko edo itzultzeko eskubidea galduko da, eta prozedura hori 12. artikuluan aurreikusitako terminoetan izapidetuko da, salbuetsiz, lan kontratua bukatzearen arrazoia, probaldia ez gainditzea, lana modu boluntarioan uztea, bidezko kaleratzea gertatzea eta kontratatutako pertsonaren heriotza edo baliaezintasuna izatea. Kasu horretan, dirulaguntzaren zenbatekoa gutxitu egingo da, lan kontratuaren iraupen eraginkorrekiko proportzioan.

Ez da dirulaguntza itzuli beharko kontratua bukatu zaion pertsonaren ordezkia deialdi honetako irizpideekin bat egiten duen langilea denean, betiere, bi kontratazio aldien batura, gutxienez, hasierako kontratuaren berdina denean.

Laguntza ordainketa bakarrean emango da, enpresa onuradunak betekizunak betetzen dituela justifikatu ondoren.

#### **6. artikulua. Beste laguntza edo dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna**

Oinarri hauetako kontrataziorako laguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuk kontzeptu eta xede berdinarekin emandako dirulaguntzekin edo laguntzekin, Gizarte Segurantzak emandako hobariak salbu.

#### **7. artikulua. Eskaerak aurkeztea**

Kontratatuko den pertsona bakoitzeko eskari bat aurkeztu beharko da, beharrezko dokumentazioa erantsiz.

Eskariak Aiarako Kuadrillan aurkeztuko dira, 2021eko urtarrilaren 11tik 2021eko apirilaren 12ra.

#### **8. artikulua. Eskariarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa**

Eskatzaileek Aiarako Kuadrillaren webgunean ([www.cuadrilladeayala.eus](http://www.cuadrilladeayala.eus)) eskuragarri egongo den eskaria bete beharko dute eta egoitza elektronikoaren bitartez bidali beharko dute.

Dirulaguntzaren eskarian kontratuaren iraupena eta lanaldi mota adierazi beharko dira.

Aiarako Kuadrillak eskatzaileari eskaria ebaluatzeko egokitzat jotzen dituen agiriak eskatu ahal izango dizkio. Era berean, beharrezko egiaztapenen bidez, ekintzen kontrola eta jarraipena egin ahal izango du.

Eskariarekin batera, gutxienez honakoak aurkeztu beharko dira:

- Foru Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako ordainketak egunean izateari buruzko indarreko ziurtagirien fotokopia. Ziurtagiri horien baliozkotasuna 6 hilabetekoa izango da, ematen diren egunetik aurrera zenbatzen hasita.

- Eguneratutako ziurtagiriaren fotokopia, Foru Ogasuneko jarduera ekonomikoan (JEZ) altan emanda dagoela egiaztatzen duena.

Langile autonomoak izanez gero:

- Indarreko IFK/IFZren fotokopia.
- Gizarte Segurantzako autonomoen araubidean alta emanda dagoenaren fotokopia edo Gizarte Segurantzaren duen egoera eguneratuaren ziurtagiria.

Pertsona juridikoak izanez gero:

- Indarrean dagoen IFKren fotokopia.
- Eratze eta eraldaketa eskrituren fotokopiak, horiek egonez gero.
- Ordezkaritza botereen fotokopia.
- Legezko ordezkariaren IFZren edo AIZren fotokopia, indarrean dagoena.

Sozietate zibilak, ondasun komunitateak edo bestelako elkarteak izanez gero:

- Indarrean dagoen IFKren fotokopia.
- Eraketa eskrituren fotokopia edo estatutuena edo zuzentasunez erregistratutako eraketa kontratuaren fotokopia.
- Ordezkaritza botereen fotokopia.
- Legezko ordezkariaren IFZren edo AIZren fotokopia, indarrean dagoena.

Kontratututako langilearen datuak adieraziko dira eta oinarri hauetan eta Lanbide -Euskal Enplegu Zerbitzuaren- zuzendari nagusiaren 2020ko ekainaren 24ko ebazpenean (Enplegua sustatzeko tokiko ekintzen laguntzen deialdiarena) jasotako betekizunak betetzen direla justifikatuko da. Kontratu mota eta kontratuaren iraupena.

Kontratututako den pertsona bakoitzeko eskari bat aurkeztu beharko da, beharrezko dokumentazioa erantsiz.

Eskatzaileak daturen bat faltsutzen badu, dagokion araubide zigortzailea ezarri ahal izango da bere aurka.

### **9. artikulua. Dirulaguntzak emateko irizpideak**

Dirulaguntzak lehia konkurrentziaren araubidean emango dira, irizpide objektiboak betez, eta horien haztapena modu honetan egingo da:

- Lehentasunezko kolektibo hauetako bat kontratatzen duen erakundea (5 puntu):
  - Emakumeak.
  - 35 urtetik beherako pertsonak.
  - 45 urtetik gorakoak.
  - Aniztasun funtzionala duten pertsonak.
  - COVID-19ak sortutako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratu ondoren enplegua galdu duten pertsonak.
  - Epe luzean langabezian dauden pertsonak.
  - Epe luzeko langabetuak dira Lanbide -Euskal Enplegu Zerbitzuan- kontratazioaren aurreko 540 egunetan enplegu eskatzaile gisa inskribatuta egon direnak, betiere, epe horren barne, gutxienez 360 egunetan, langabezia egoeran egon badira.
- Gizarte bazterketa egoeran egoteko arriskua duten pertsonak.

- Gizarte bazterketa egoeran egoteko arriskuan dauden pertsonak dira diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrak, beraien bizikidetzaren unitateko kideak, eta honakoak:

- 18 urte baino gehiagoko eta 30 urte baino gutxiagoko gazteak, adingabeak babesteko erakundeetan daudenak.

- Drogamenpekotasun arazoak edo adikzio nahasmenduak dituzten pertsonak, errehabilitazio edo gizarteratze prozesuetan daudenak.

- Espetxeetan dauden pertsonak, betiere, enplegua izan badezakete eta horien lan harremana uztailaren 6ko 782/2001 Errege Dekretuan araututako lan harreman bereziaren alorraren barne ez badago, baita ere baldintzapeko askatasuna duten pertsonak eta preso ohiak.

- Barneko adingabeak, Adingabeen erantzukizun penal arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren aplikazio eremuaren barne daudenak, eta, enplegua izan dezaketena eta horien lan harremana lege horren (uztailaren 30eko 1774/2004 Errege Dekretuaren bidez onetsi zena) araubidearen 53.4. artikuluan xedatutako lan harremanaren aplikazio eremuaren barne ez dutenak eta zaintzapeko askatasun egoeran daudenak eta preso ohiak.

- Alojamentu alternatiboetako zentroetatik datozen pertsonak, betiere, zentro horiek, Euskal Autonomia Erkidegoko agintaritza eskudunen baimena izanez gero.

- Aniztasun funtzionala duten pertsonak.

- Familia erantzukizunak dituzten emakumeak. Familia erantzukizunak dituzten emakumeak dira beren kargua ezkontidea eta/edo 26 urte baino gutxiagoko seme-alabak edo nagusi ezgaituak edo harrerako adingabeak dituztenak.

- Genero indarkeriaren biktima diren emakumeak.

- Lanaldi osoko kontratua eta 6 hilabete edo gehiagoko iraupena: (5 puntu).

- Lanaldi osoko kontratua eta 6 hilabete baino gutxiagoko eta 3 hilabete baino gehiagoko iraupena: (3 puntu).

- Lanaldi partzialeko kontratua eta 6 hilabete edo gehiagoko iraupena: (2 puntu).

- 5 langile baino gutxiagoko enpresak (3 puntu).

- 5 eta 25 langile artean duten enpresak (2 puntu).

- 25 langile baino gehiagoko enpresak (puntu 1).

Enpresako langile kopurua egiaztatzeko agiria, dirulaguntzen kontratuak izango dituzten langileak laneratu aurreko hiru hilabeteetan zehar enpresako plantillaren batez bestekoaren ziurtagiria izango da.

Balorazio irizpideak ezarri ondoren, lehentasuna izango dute emakume bat kontratatzea aurreikusten duten eskariek, gehienez ere, dirulaguntza jasotzeko aurreikusitako kontratazioen ehuneko 50era arte.

Gainerako eskariak, ordenaren eta puntuazioaren arabera emango dira, Lanbide -Euskal Enplegu Zerbitzuak- 2020ko ekitaldian enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako emandako laguntzen deialdiko ratioak bete arte, 2020ko ekainaren 30eko 127. zenbakidun EHAAn argitaratutakoa; laguntza horiek deialdi horren barne daude. Hau da, gutxienez, azkenean dirulaguntza jasoko duten kontratazioetako ehuneko 40, emakumeek osatuko dute.

Puntuazioetan berdinketak gertatuz gero, balorazio fasea edozein izanda ere, Aiarako Kua-drillako erregistroan eskariak aurkeztutako ordenaren arabera jardungo da.

Eskuragarri dagoen kreditua bukatzen duen dirulaguntza ordaintzeko saldoa nahikoa ez bada, gainerako kreditua gehituko zaio, eta gehienez ere, dagokion zenbatekoa osatu arte eman ahalko da, betiere, soberakinak egonez gero, enpresa onuradun batek dirulaguntzari uko egin diolako edo baldintzaren bat bete ez duelako.

Aukera hori interesatuei jakinaraziko zaie, luzatu ezingo den hamar eguneko epean dirulaguntzaren proposamena egiteko. Eskatzaileak eskaria onartu ondoren, emate ekimena aginduko da eta jakinarazpena egingo da.

#### **10. artikulua. Emate prozedura**

Hemen araututako dirulaguntzak lehia konkurrentziaren prozedura bidez emango dira, objektibotasun, gardentasun, berdintasun eta publikitate printzipioekin bat eginez.

Eskariak aurkezteko epea bukatzen denean, sustapen ekonomikoko teknikariak eskariak eta dokumentazioa aztertzeko aurretiazko fasea hasiko du, ziurtatzeko, oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla.

Eskariek termino guztiak betetzen ez badituzte edo dokumentazio guztia ez badute, pertsona edo erakunde interesdunari eskatuko zaio hamar egun baliouduneko epean akatsak zuzentzeko edo derrigorrezko agiriak aurkezteko. Hala, berariaz jakinaraziko zaio, hori egiten ez badu, eskaria ezetsiko dela, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan aurreikusitako terminoekin bat eginez ebazpena eman ondoren.

Espediente osoa, eskariekin lotutako txostenarekin batera (bertan jasoko dira gauzatutako jarduketak eta horien emaitza) Aiarako Kuadrillako Tokiko Gobernu Batzarrera bidaliko da (ebazpena emateko organoa den heinean, ebaluazio eta jarraipen batzorde gisa jardungo du, kuadrillako sustapen ekonomikoko teknikariaren aholkularitzarekin).

Organo horrek, balorazioko txosten teknikoa kontuan hartuz eta espedientean jasotakoekin bat eginez, behin-behineko ebazpen proposamena egingo du, eta proposamen hori pertsona edo erakunde interesatuei jakinaraziko die eta alegazioak aurkezteko 10 eguneko epea emango die.

Hala ere, entzunaldi izapide hori albo batera utziko da pertsona edo erakunde interesdunak argudiatutako alegazioez eta frogez gain, bestelako egitaterik ez dagoenean eta horiek kontuan hartzen ez direnean. Kasu horretan, ebazpen proposamena behin betikoa izango da.

Pertsona edo erakunde interesatuek aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, organo erabakitzaileak, aurretiaz txosten teknikoa egin ondoren, behin betiko ebazpena emango du. Behin betiko ebazpen horretan, pertsona edo erakunde onuradunen izena edo izendapena, identifikazio fiskaleko zenbakia, dirulaguntza jasoko duen kontratazioa eta gehienezko zenbatekoa agertuko dira.

#### **11. artikulua. Ebazpena**

Tokiko Gobernu Batzarrak ebazpena eta arrazoiak emango ditu ebazpen proposamena aztertu ondoren, gehienez ere eskariak aurkezteko epea bukatzen denetik aurrera zenbatzen hasita sei hilabeteko epean. Ebazpenean, dirulaguntza jasoko duten eta eskaria ezetsi zaien pertsona edo erakunde eskatzaileen identifikazioa jasoko du. Ukapenak behar bezala arrazoituta egongo dira, eta emateetan, laguntzaren xedea eta zenbatekoa adierazi beharko dira.

Ebazpen hori Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan aurreikusitakoarekin bat eginez jakinaraziko da.

Emateko ebazpenean, gainera, eskari guztien zerrenda antolatua jaso ahal izango da, horiek, pertsona edo erakunde onuradunaren izaera jasotzeko oinarri hauetan ezarritako betekizunak betez, onartuak izan ez direnean oinarri hauetan zehaztutako kredituaren gehienezko zenbatekoa gainditu delako. Horrez gain, bakoitzari emandako puntuazioa jaso beharko da ezarritako balorazio irizpideekin bat eginez, soberakinak egonez gero (enpresa onuradunek dirulaguntzari uko egin diotelako edo ezarritako baldintzak bete ez dituztelako), aplikatzeko.

Hala, enpresa onuradunek dirulaguntzari uko egiteagatik edo baldintzak ez betetzeagatik soberakinak egonez gero, organo emaileak, deialdi berri bat egin behar izan gabe, dirulaguntzaren ematea adostuko du eta puntuazio ordenaren arabera hurrengo postuan dagoen pertsona edo erakunde eskatzaileari emango dio dirulaguntza, askatutako kreditua bukatu arte.

Aukera hori pertsona edo erakunde interesatuei jakinaraziko zaie, luzatu ezingo den hamar eguneko epean dirulaguntzaren proposamena egiteko. Dagokion pertsonak edo erakundeak eskaria onartu ondoren, emate ekimena aginduko da eta jakinarazpena egingo da.

## **12. artikulua. Justifikazioa eta eskubidea/itzulketa galtzea**

Pertsona edo erakunde onuradunak dirulaguntza zuzen erabili izanaren justifikazio agiriak aurkeztu beharko ditu 2021eko abuztuaren 9aren aurretik. Justifikazio dokumentazioan, honakoak gehitu beharko dira:

- Kontratutako pertsonak, horien lanaldia eta kontratuaren iraupen eraginkorra eta zein kolektibotakoak diren; datu guztiak sexuen arabera banatuta egon beharko dira.
- Horien soldata eta gizarte segurantzako kostuak.
- Dirulaguntza jasotako aldiaren nominak, ordainketa ziurtagiriekin eta aldi bereko kotizazioen likidazio ordainagiriekin.

Dokumentazio hori aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak betebeharrak aitortuko ditu eta dagozkion zenbatekoak ordainduko ditu.

Aiarako Kuadrillak beharrezko ikuskaritza eta kontrol ekintzak eskatu ahal izango ditu, bermatzeko, oinarri hauetako xedea betetzen dela. Era berean, pertsona edo erakunde onuradunek jarraipen eta kontrol jarduketak errazteko laguntza eskaini beharko dute.

Justifikaziorik egiten ez bada, justifikazioa nahikoa ez bada edo Dirulaguntzen lege orokorren 37. artikuluan aurreikusitako inguruabarrak gertatuz gero, dirulaguntza kobratzeko eskubidea galdu egingo da.

Dirulaguntzarako epearen aurretik lan kontratuak bukatuz gero, eskubidea galduko da dirulaguntza kobratzeko edo itzultzeko, salbuetsiz, lan kontratua bukatzearen arrazoia, probaldia ez gañditzea, lana modu boluntarioan uztea, bidezko kaleratzea eta kontratatutako pertsonaren heriotza edo baliaezintasuna izatea. Kasu horretan, dirulaguntzaren zenbatekoa gutxitu egingo da, lan kontratuaren iraupen eraginkorrekiko proportzioan.

Dirulaguntza kobratzeko eskubidea galtzearen bidezkoatasuna deklaratzeko prozedura Dirulaguntzen lege orokorren 42. artikuluan ezarritakoa izango da.

Emandako dirulaguntza itzuli beharko da eta dagozkion berandutze interesak eskatuko dira (ordainketa egunetik itzulketaren bidezkoatasuna erabakitzen den egunera arte), Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrean jasotako kasuren bat gertatuz gero.

Betekizunen bat betetzen ez bada eta urratze hori enpresari edo hark kontratatutako pertsonari egotz dakiokenean eta Lanbidek emandako eta Kuadrillak jaso beharreko dirulaguntza gutxitzen denean, zenbateko horiek laguntza jasotzen duen pertsonari edo erakundeari egotziko zaizkio, dagozkion murriztapenekin eta modu proportzionalen.

Itzulketa prozedura Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoarekin bat eginez izapidetuko da, eta Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiaren bidez ebatziko da, entzunaldi izaipidea beti egingo delarik.

## **13. artikulua. Enpresa onuradunen betebeharrak**

Orokorrean, dirulaguntzen pertsona edo erakunde onuradunek, Dirulaguntzen lege orokorren 14. artikuluan, Dirulaguntzen lege orokorren araubidea onesten duen ekainaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan eta oinarri hauetan xedatutakoak bete beharko dituzte, eta, bereziki, hauek:



- Dirulaguntzaren xede den kontratua egin dela egiaztatzea eta ematea zehaztu zuten betekizunak eta baldintzak betetzen direla egiaztatzea.
- Dirulaguntza ematea zehaztu zuten inguruabar subjektiboak edo objektiboak jakinaraztea, eta, bereziki, kontratatutako pertsonaren lan kontratua eten dela edo pertsona hori ordezkatu dela jakinaraztea, hala badagokio.
- Jarduera berdinentzako, ondoren, beste administrazio edo erakunde publiko batek emandako dirulaguntzen edo laguntzen zenbatekoa jakinaraztea.
- Eskatutako informazio guztia ematea, emandako dirulaguntzarekin lotutako egiaztatze eta kontrol jarduketak betez.

#### **14. artikulua. Arau-hausteak eta zehapenak**

Arau-hausteen eta zehapenen araubidea Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen eta 887/2006 Errege Dekretu bidez onetsitako araubideak xedatuko dute.

#### **15. artikulua. Datuen babesa**

Dirulaguntza eskaera aurkeztearekin, erakunde eskatzaileak onartzen eta adierazten du bete egiten dituela deialdian finkatutako betekizun guztiak eta oso-osorik onartzen duela bertan jasotako guztia.

Dirulaguntzaren eskaria aurkeztean, administrazio publiko horretan edo beste batzuetan edo hirugarrenetan jasotako datuak lagatzeko eta jakinarazteko baimena emango da lege horretan aurreikusitako inguruabarretan, eta, gainera, berariazko ebazpena emango da Aiarako Kuadrillak datuen tratamendua egiteko, betiere, aurretik aipatutako xedeak betetzeko bada.

#### **16. artikulua. Erakunde onuradunek dirulaguntzaren publizitatea egitea**

Erakunde onuradunek, berariaz jaso beharko dute Aiarako Kuadrillaren eta Lanbide -Euskal Enplegu Zerbitzuaren- babesa, deialdi honetan finantzatutako jarduera guztietan, jarduera horiek hedatzen, zabaltzen, edo, hala badagokio, argitaratzen badira.

### **XEDAPEN GEHIGARRIA**

Xedapen gehigarri bakarra.

Oinarri arautzaile hauetan berariaz aurreikusita ez dagoen guztirako, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, aplikatu beharreko gainerako garapen edo sektore araubideak, Administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta beren izaera kontuan hartuz, aplikatu beharreko gainerako araudi xedapenak aplikatuko dira.

### **AZKEN XEDAPENA**

Azken xedapen bakarra.

Oinarri hauek indarrean jarriko dira Tokiko araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 70.2. artikuluekin bat eginez.

Arespalditza, 2020ko abenduaren 3a

*Lehendakaria*

**ENCINA CASTRESANA ASTARLOA**